

PRIBATUTASUN POLITIKA



ALDAKETEN KONTROLA

BERTSIOA	DATA	ALDAKETAK
1.0	2018ko abenduak 04	
1.1	2021eko azaroak 26	Tratamenduen eguneratzea
1.2	2022ko uztailak XX	Izenperen tratamendu-jarduerei buruzko informazioa sinplifikatzea. Datuen babesari eta informazioaren gardentasunari buruzko araudiaren inguruko bi epigrafe berri txertatzea.



AURKIBIDEA

1.	TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN IDENTIFIKAZIOA ETA HARREMANETARAKO DATUAK	4
2.	DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO ARAUDIA	4
3.	INFORMAZIOAREN GARDENTASUNA.....	4
4.	INTERESDUNEN ESKUBIDEAK.	5
5.	TRATAMENDU JARDUEREN ERREGISTROA	6
6.	ALDAKETAK	6



Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Enpresa de Certificación y Servicios, Izenpe, SAK zure datu pertsonalak nola erabiltzen dituen jakinarazten dizugu politika honen bidez.

1. TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN IDENTIFIKAZIOA ETA HARREMANETARAKO DATUAK

Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe SA.	
HARREMANETARAKO DATUAK	<ul style="list-style-type: none">- Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 1. solairua. 01008 Vitoria-Gasteiz- www.izenpe.eus/datos- 900 840 123
DATUAK ORDEZKARIA	BABESTEKO datos@izenpe.eus

2. DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO ARAUDIA

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Araudia, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.

3. INFORMAZIOAREN GARDENTASUNA

Izenpek, haren jarduera arloaren baitan, hainbat tratamendu-jarduera burutzen ditu.

Jarduera horiei buruzko informazioa datuak jaso aurretik ematen zaie erabiltzaileei, web-formularioen edo papereko formularioen bidez. Gainera, Erabiltzaileen Arreta Zerbitzuaren kasuan, datuak telefonoaren bidez jaso daitezke.

Formularioen kasuan, bi geruzako eredu bat ezarri dugu:

1. geruza	<ul style="list-style-type: none">- Tratamenduaren arduraduna- Xedea- Tratamendua legitimazioa- Eskubideak baliatzeari buruzko informazioa
2. geruza	Helbidea www.izenpe.eus/datos <ul style="list-style-type: none">- Interesdunen eta datuen kategoriak- Tratamenduaren xedea- Oinarri legitimatzailea



	<ul style="list-style-type: none">- Datuen komunikazioak- Tratamenduaren eragileak:- Nazioarteko transferentziak- Datuak gordeko diren denbora-tartea- Segurtasun-neurriak
--	--

4. INTERESDUNEN ESKUBIDEAK.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduak (2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez. Araudi horrek 95/46/EB Zuzentaraua indargabetzen du) eta 3/2018 Lege Organikoak (abenduarien 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa) ahalbidetzen dute Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, SA enpresaren aurrean eskubide hauek baliatzea:

- **Sarbiderako eskubidea:** tratamenduaren arduradunaren eskutik interesdunari dagozkion datu pertsonalak tratatzen ari diren edo ez jakiteko eskubidea eta, hala bada, datu horiek eskuratzeko eskubidea.
- **Zuzentzeko eskubidea:** interesdunari dagozkion datu pertsonal okerrak zuzentzeko eskubidea eta osatu gabe dauden datu pertsonalak osatzeko eskubidea, baita adierazpen gehigarri baten bidez ere.
- **Ezabatzeko eskubidea (ahazteko eskubidea):** zirkunstantzia jakin batzuetan, interesdunari dagozkion datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea.
- **Mugatzeko eskubidea:** balizko kasu batzuetan, datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskubidea.
- **Eramateko eskubidea:** ohiko erabilerako eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean datu pertsonalak jaso eta beste tratamendu-arduradun bati bidaltzeko eskubidea, betiere tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.
- **Uko egiteko eskubidea:** datuen arduradunak interesdunari dagozkion datu pertsonalak tratatzeari uko egiteko eskubidea, edozein momentutan eta interesdunaren egoera partikularrekin lotutako arrazoiengatik, interes publikoko egiteko batean edo ahalmen publikoen egikaritzean edo hirugarrenen legezko interesean oinarrituta, profilak egitea barne.
- **Banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea:** datuen tratamenduan bakarrik oinarritzen den erabaki baten xede ez izatea bermatzeko helburua duen eskubidea, profilak egitea barne, erabaki horrek eragin juridikoak baditu pertsonaren gain edo antzeko modu batean nabarmen eragiten badio.

Eskubide horiek www.izenpe.eus/datos webgunean adierazitakoaren arabera balia daitezke, honakoen bidez:

- **Posta bidez:** eskaerari NANaren edo AIZren kopia bat gehituz.



- Edo modu elektronikoan, aplikazioa beteta. Konfiantzako zerbitzu elektronikoen emailerekin kualifikatuen konfiantzako zerrendan argitaratutako ziurtagiri bat izan behar du eskatzaileak.

5. TRATAMENDU JARDUEREN ERREGISTROA

Erregelamenduaren 30. artikulua ezartzen duenaren arabera, datuen tratamenduaren arduradunek haien erantzukizunpean egindako Tratamendu Jardueren Erregistro bat sortzeko eta mantentzeko betebeharra dute.

DBOEn arabera, tratamendutzat hartzen da datu pertsonalen edo datu pertsonal multzoen gainean egindako edozein eragiketa edo eragiketa multzo, prozedura automatizatuen bidez egin edo ez: datuak jasotzea, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, gordetzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, helarazpen bidez komunikatzea, hedatzea edo eskuratzeko beste edozein modu gaitzea, erkatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea.

Erregistro honen helburua erantzukizun proaktiboaren printzipioan oinarritzen da; hori da 2016/679 Erregelamenduaren funtsezko printzipioetako bat. Praktikan, erakundeek aztertu egin behar dute zer datu pertsonal tratatzen dituzten, zer helbururekin egiten duten eta zer tratamendu-eragiketa mota gauzatzen duten. Hala, erakundearen aurrera eramaten ari diren datuen tratamendu-jarduera guztien ikuspegi orokorra izateko aukera ematen du tresna honek.

Honako hau da Izenpek haren erregistroan jasotzen duen informazioa: tratamendu-jarduera, interesdunen kategoriak, helburua, oinarri legitimatzailea, datuen kategoriak, datuen komunikazioak, tratamenduaren arduradunak, nazioarteko transferentziak, gordeko diren denbora-tartea eta segurtasun-neurriak.

Ikus: www.izenpe.eus/seguridad-privacidad/

6. ALDAKETAK

Dokumentu honetan egiten diren aldaketak Izenperen Segurtasun Batzordeak onartuko ditu.